

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

54/2020 Mozioa, uztailaren 17koa, Arabako Haranen ureztapen-proiektuari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko uztailaren 17an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

54/2020 Mozioa, uztailaren 17koa, Arabako Haranen ureztapen-proiektuari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek bera egiten dute Tumeziloko Ureztatzaileen Komunitateak eta UAGAK egindako eskaera, hain zuzen ere berresten duena ureztapena beharrezkoa dela Arabako Haranetan nekazaritzaren sektorearen eta eskualdeko herrien etorkizuna bermatzeko.

2. Arabako Batzar Nagusiek ACUAESi eskatzen diote xehetasunez jakinarazi diezaiola Arabako Foru Aldundiari zergatik adierazi duen ezin dituela bete "Arabako Haranetako Gune Ureztagarriko Ureztapena hobetzeko eta modernizatzeko proiektuaren (1, 2, 3, 4, 5, 6 eta 7 guneak)" ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazioan jasotako prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak.

3. Arabako Batzar Nagusiek ACUAESi eskatzen diote urtebeteko epean aurkeztu dezala hitzarmenaren jarraipenerako batzorde mistoan azterlan zehatz eta xehetu bat Arabako Haranetako ureztapen-beharrak asetzen dituzten alternatiba bideragarriei buruz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 17a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA